

ORDIZIAKO ZABOR DOMESTIKOEN BILKETARAKO SISTEMA AUKERATZEKO HERRI-KONTSULTA GAUZATZEKO PROZEDURA

1. BOTOA EMATEKO LEGEZTATUTA DAUDEN PERTSONAK

16 urtetik gorako pertsona guztiek izango dute kontsultan parte hartzeko eskubidea, baldin eta bozketa hasterako urte horiek beteak badituzte eta kontsultaren deialdia egiten den unean herrian erroladatuta badaude.

Beraz, prozesu honetan parte hartu nahi dutenek bi baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 2.000ko martxoaren 13an edo lehenago jaioa izatea.
- Ordizian 2016ko otsailaren 25an edo lehenago errolaturik egotea.

2016ko otsailaren 29an, boto emaileen erroldaren informazio publikoa jasotzen duen iragarki bat argitaratuko da iragarki oholean eta web orrian, hautesleei 3 eguneko epea emanez, biharamunetik kontaktzen hasita, beren erroldako datuak zuzenak direla egiaztatu, eta hala badagokio Arreta bulegoaren aurrean datuei buruzko erreklamazioa tartekatze aukera azalduz, Alkatetzak 2016ko martxoaren 7rako ebatzi beharko duelarik. Jarraian iragarki oholean zentsuaren zuzenketak argitaratuko dira.

Udalak hautesleei informazioa emango die, bakoitzak zein hautesleku eta mahaietan gauzatu behar duen bere bozkatzeko eskubidea jakin dezaten.

2. GALDERA EGITEKO MODUA

Galdera bat egingo da eta modu labur, argi eta ulerterrazean egina izango da, herritarrek horien hedadura osoa ulertu ahal dezaten.

GALDERA:

Ordiziako herritarrek, etxebizitzetako hondakinen bilketaren inguruan bere iritzia eman eta erabaki nahi dute. Ordiziak batazbesteko %75eko gaikako bilketa batekin (zaborretara botatzen dugunetik errefusa ez diren gainerako frakzio guztiak bereizita) birziklatzen du gaur egun. Herri-galdeketa honetan proposatzen diren edozein aukeretatik eratorriko den emaitzak birziklatze-tasa hori bermatuko du, guztion ahalegin eta erantzukizunez %85a lortzeko helburuarekin. Herri-galdeketa emaitzaren ondorioz etxebizitzetako hondakinak biltzeko egutegi bat ezarriko da, eta etengabeko jarraipena burutuko da birziklatze tasa eta jasotako hondakinen kalitatearen inguruan, hala balegokio, beharrezkoak diren hobekuntza neurriak hartuz, ingurumen iraunkortasun irizpideen arabera.

Ordizian gaikako ze hondakinen bilketa sistema erabili behar dela uste duzu?

- BILKETA SISTEMA MISTOA. Errefusa eta organikoa atez-ate, eta gainontzeko frakzioak edukiontzi kolektiboetan.
- EDUKIONTZI KOLEKTIBOEN SISTEMA. Errefusa eta organikoa chip-a duten edukiontzi itxietan eta gainerako frakzioak edukiontzi kolektiboetan.

Boto-orri edo papeleta bakoitzean erantzun-aukera bakarra jasoko da, soilik eredu ofizial erabiliko direlarik herri kontsultan.

Boto-orriak eta gutun-azalak klororik gabe zuritutako paper birziklatukoan aterako dira.

Udalak eredu ofizialeko boto-orriak eta gutun-azalak jarriko ditu herritarren eskura bozka eskubidea gauzatu ahal izateko. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira eredu ofizialetan.

3. IDENTIFIKAZIOA

Botoa ematera doan pertsonak bere burua identifikatu beharko du izen-abizenekin, argazkia duen jatorrizko honako agiri hauetako baten bidez: nortasun agiria, pasaporte edo gidabaimena. Agiri horiek iraungita egon arren onartu egingo dira, baina jatorrizkoak izan behar dira. Ez da fotokopiarik onartuko.

4. BOZKETA MODUAK

Botoa presentziala edo ez-presentziala izan daiteke. Bi sistema hauek konbinatzeko ahaleginak egingo dira, ahalik eta partaidetzarik zabalena eta kontsulta-prozesuaren eraginkortasuna sustatzeko.

5. BOZKETA ALDIA

Eguna: 2016ko martxoaren 13an

Ordua: 9:00etatik 20:00ak arte.

Lekuak: 4 mahai, hain zuzen:

- INSTITUTOA
- URDANETA
- LUKUSIN
- UDALETXEA

(*) **Salbuespenak:**

- **aurrefiazko bozka egikaritzeko aukera**

Egunak : 2016ko martxoaren 9tik 11ra

Ordua: Goizeko 9:00etatik 15:00etara eta 15:30etatik 20:30etara

Lekua: Goizez Arreta bulegoan eta arratsaldean Udaltzaingoa

- **bozka ez-presentziala egitariteko aukera**

Posta bidez

Ordiziako web orrialdean banner bat sortuko da bozka ez-presentzial honen eskaera egiteko eta telefono bidez ere egin daiteke.

- **mugikortasun murrizta eta etxetik ateratzen ez direnen bozka**

Mugikortasun murrizta dutenen boto eskaera aldean aurretik Arreta bulegoan edo telefono bidez egin behar da.

Egunak : 2016ko martxoaren 9tik 11ra

Ordua: Goizeko 9:00etatik 15:00etara.

Udal langile bat etxera gerturatuko da boto honen bila.

6. AURRETIAZKO BOZKA

Bozkatzeko finkatutako egunean halaberrez bozkatu ezin dutenek 2016ko martxoaren 9tik 11ra, goizeko 9:00etatik 15:00etara eta 15:30etatik 20:30etara, bozkatzeko aukera izango dute. Botoa goizez Udaletxeko arreta bulegoan eta arratsaldean Udaltzaingoa emango da.

Udal langileak izen-abizenak egiaztatuko ditu. Boto-emaelearen izena hautesleen erroldako zerrendan badatorrela egiaztatu ondoren, Udaltzaingoa Plenoak aurretiazko bozka emateko onartutako eskaera-orka bete ondoren eta izen-abizenak horretarako prestatuta egongo den boto-emaeleen zerrenda zenbakidunetan idatzi ondoren, boto-emaeleak botoa emango du, gutun-azal itxia udal langileari emanaz eta honek, bere aurrean, aurretiazko bozkaren agiria eta botoa aurretiazko bozkarako prestatutako gutun-azal itxian sartuko ditu. Boto-emaeleari aurretiazko bozka emateko onartutako eskaera-orkaren kopia udal langilearen eginbidearekin emango zaio aurretiaz bozkatu izanaren errezibo gisa.

7. BOZKETA EZ-PRESENTZIALA

Bozketa ez-presentziala posta ziurtatuz egingo da eta udal bitartekoak soilik erabili ahal izango dira.

Ordiziako web orrialdean banner bat sortuko da bozka ez-presentzial honen eskaera egiteko eta telefono bidez ere egin daiteke.

8. MUGIKORTASUN MURRITZA DUTENEN BOZKA

Bozketa modu hau egiteko aldez aurretik Udaletxeko Arreta bulegoan edo telefono bidez egin beharko dute eskaera.

Mugikortasun murrizta eta etxetik ateratzen ez direnak 2016ko martxoaren 9tik 11ra, goizeko 9:00etatik 15:00etara bozkatzeko aukera izango dute.

Udal langile bat etxera gerturatuko da boto honen bila.

9. KONTSULTA MAHAIAK

Udalerrian gutxienez atal bat eratu behar da eta honek 500etik 2.000 hautesle arte baneratu behar ditu eta edozein kasutan gutxienez mahai batek osatuko du atal bakoitza. Baldintza hauek mantenduz, jarraian jasotzen den banaketa egitea hobetsi da.

BARRUTIA	ATALA	MAHAIA	LETRAK	LEKUA - HELBIDEA
1	1	U	A-Z	INSTITUTOA
1	1	U	A-Z	URDANETA
1	1	U	A-Z	LUKUSIN
1	1	U	A-Z	UDALETXEA

Mahai, hautesleku eta Sekzioen zerrenda 2016ko otsailaren 29tik martxoaren 4ra arte iragarki oholean ezarriko da ikusgai herritarrentzat. Egun horietan, hautesleek mugatze horren aurka erreklamazioa aurkez dezakete Alkatetzaren aurrean, eta organo horrek erabaki irmoa hartuko du 3 egunen barruan. Jarraian behin betiko zerrenda iragarki oholean argitaratuko da.

10. MAHAIEEN OSAKETA

Mahaia bi pertsonen osatuko dute. Mahaikideak Udaletxeko zinegotziak eta hondakin mahaiko ordezkariak izango dira.

Mahaiburua zinegotzi bat izango da udal zentsua erabili ahal izateko. Mahaikidea hondakin mahaiko ordezkari bat izango da.

Titular bakoitzeko ordezkari bat izendatuko da. Titularrek ezintasunak izanez gero ordezkariak hartuko dute parte.

Mahaietan interbentoreak edo artekariak egon daitezke.

Udal talde bakoitzak apoderatu edo ahalordedunak ere izenda ditzakete beren ordezkari bezala.

11. MAHAIAK ERATU ETA BOZKETA PROZESUA

Bozketa egunean goizeko 08:30ean hauteslekuan egon beharko dira egun horri dagozkion mahaikideak eta ordezkioak. Printzipioz mahaia titularrekin eratuko da, bestela berriz, ordezkoek hartuko dute haien lekua. Artekariak ere bertan egon beharko dira.

Mahaia eratu ostean, mahaikideek hauteskunde-materiala bertan dagoela egiaztatuko dute.

Bozketa egingo den gelan botoa aukeratzeko kabina bat eta mahai bat jarriko dira. Mahai horren gainean Udalbatza Plenoak onartutako gutun-azal eta boto-orri edo papeleta ofizialak egongo dira.

Beste mahai bat ere izango da, eta bertan egongo da jarrita botoa emateko eskubidea gauzatzeko boto-kutxa eta herri kontsultako agiriak.

Mahaia eratu ostean, "mahaiaren eraketa-akta" beteko da, bi mahaikidek eta kargua eman zaien artekariak sinatuko dute. Aktaren kopia emango zaie udal talde (kopia bakarra taldeko), eta ahalordedunei edo artekariei, eskatzen baldin badute.

09:00etan bozketari ekingo zaio.

Botoa ematera doan pertsonak bere burua identifikatu beharko du izen-abizenekin, argazkia duen jatorrizko honako agiri hauetako baten bidez: nortasun agiria, pasaporte edo gidabaimena. Agiri horiek iraungita egon arren onartu egingo dira, baina jatorrizkoak izan behar dira. Ez da fotokopiarik onartuko.

Mahaia hauteslearen izen-abizenak egiaztatuko ditu. Boto-emaiaren izena hautesleen erroldako zerrendan badatorrela egiaztatu eta, aldeztu aurretik botoa emateko aukera ez duela egikaritu egiaztatu ondoren.

2016ko martxoaren 13an 20:00etan, hauteskunde-mahaia itxi egingo dira.

12. BOTO KONTAKETA

Mahaikideak boto-kutxa irekiko du eta banan-banan gutun-azalak atera eta ireki ondoren, kontaketa ekingo zaio. Kontaketa mahaikideek burutuko dute, eta artekarien kontrolpean egingo da, baino azken hauek ezingo dute kontaketa parte zuzenik hartu.

Gutun-azalak eta papeletak aztertzean, erantzun-aukera bakoitzaren aldeko boto baliogabeak gainera, boto zuriak eta boto baliogabeak ere aurki daitezke. Boto horiek ere kontuan hartu behar dira, kontaketa egiteko zein bozketaren emaitza zehazteko.

Boto baliogabeak izango dira eredu ofizialaz besteko gutun-azal edo papeleta bidez emandako botoak; aldatuta dauden gutun-azal emandako botoak; aldatutaren bat duten papeletak (zirriborroak edo oharrak idatzita dituzten papeletak, hautsirik edo urraturik dauden papeletak); gutun-azalik gabeko

papeletak eta gutun-azal berean papeleta desberdinak baldin badaude [papeleta guztiak erantzun-aukera berdinekoak badira, boto baliodun bakarra kontatuko da].

Gutun-azal hutsa boto zurizat joko da.

Udal idazkariak guztizko emaitzak jasotzen dituen ziurtagiria egingo du. Momentu horretan plazaratu ahal izango dira behin betiko emaitzak.

13. PROZESUAREN BERMEAK ETA SEGURTASUNA

Bozka prozesuari 2016ko martxoaren 13an goizeko 9:00etan ekingo zaio udal idazkariak mahai guztiak eratu direla egiaztatu ostean.

2016ko martxoaren 13an 20:00etan, hauteskunde-mahaiak itxi egingo dira.

Boto-kutxa bat betetzen den aldiro mahaikideak erabat zigilatuko du eta, dagokion diligentsia egin ondoren mahaiari bertan bere zaintzapean geratuko da, boto-kontaketa egiten den unera arte.